

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argi gorriak itzaltzen

AMSTERDAM, 1275EKO URRIAREN 27A. Herbeheretako kostako arrantzale herrixka horretako biztanleek bidesaririk ez ordaintzeko eskubidea lortu zuten eta, horregatik, hori hartzen da hirien fundazio datatzat. Berez, 1300ean lortu zituen hiri eskubideak. 1323an Willem III.a kondeak garagardoaren salerosketarako erraztasunak eman zizkien eta, haren oinordeko Willem IV.ak pribilegio gehiago eman ondoren, Amsterdam Liga Hanseatikoarekin harremanetan hasi eta Holandako merkataritza gune nagusia bilakatu zen. “Marinelak eta merkataria non, prostituzioa han” legea betez, jardura horrek berehala hartu zuen indarra portu inguruetan, Erdi Aroko harresien barruan. Urte horietan, XX. mendean gertatuko zenaren aurrekari, hiriko agintariak kudeatzen zuten gaur Damsstraat izena duen kaleko prostituten jarduna.

XVI. mendean holandarrak eta Espainiako Felipe II.aren arteko gatazka hasi zen, eta 80 urteko gerraren ostean, independentzia lortu zuten Herbehereek. Orduan iritsi zen loraldi ekonomikoa eta XVII.a Amsterdamen Urrezko Mendea izan zen. Europako merkataritza portu nagusia bihurtu zen eta bertako burtsa izan zen eguneroko jardura izaten lehena. Ordurako legez kanpoko izan arren, prostituzioa ere egunetik egunera hazten ari zen. Garai hartan sortu ziren prostituten era-

kusleho ezagunak, bezeroak etxeko leihotik edo atetik erakartzeko ohitura zaharra sistematizatzea erabaki zutenean.

1911n prostituzioa legezko bihurtu zen Herbeheretan eta apurka, Amsterdameko auzo zaharrena, bertakoek De Wallen (harresiak) esaten diotena, Auzo Gorri edo Argi Gorrien Distritu bihurtu zen kanpotarrentzat. Aktibitate ekonomiko berrietara egokitzeko malgutasuna erakutsiz, prostituzioak ongi-etorri beroa egin zien bisitari berriei, turistei. Gaur, Amsterdameko auzorik zaharreneko erakusleho multzoa hiriko gune turistiko bisitatuena da, Van Gogh museoaren eta kanaletan dabilzan ontzien aurretik.

Hala ere, legalizazioak ia 100 urtetan ez du lortu legez kanpoko jarduerak desagerarazterik. Alderantziz, Amsterdameko De Wallen auzoa prostituzio eta droga trafiko ilegalaren gune garrantzitsu bihurtu da.

Hori dela eta, Amsterdameko Udalak hamar urteko plan bat aurkeztu berri du. Horren arabera, 2018. urtean ez da ia prostituten erakuslehorik izango Auzo Gorrian. Herbeheretako beste hamabi hiritan erakuslehoek bere horretan eutsiko diote, eta Herbeheretan nahiz hortik kanpo ezkutuko prostituzioaren arazoak konpontzeko hamar urteko plana baino gehiago beharko da. ■



Amsterdameko Auzo Gorriak erro historiko sakonak ditu, baina hamar urte barru gaur ikusten diren argi gorriak itzalita egongo dira.

ARRASTOAK

ERROMATAR sandalia baten aztarna aurkitu dute Israelen, Hippos-Sussita aztarnategian. Oinetako militar baten iltzeek lehortu gabeko zoruan utzitako arrastoa da, 40 neurriko oinari dagokiona, eta legionarioek eta zenturioiek erabili ohi zituzten oinetakoen tankerakoa dela diote adituek. K.a. II. edo I. mendean datatu dute aurkikuntza eta horrek harridura

sortu du arkeologoen artean. Izan ere, Hippos Dekapoliseko hiri hebrearra zen eta oinatza aurkitutako eraikina hebrearrek egin zuten. Erromatar Inperioaren ekialdeko muga inguru horietan ez zuten garai hartako erromatarren arrastorik aurkitzea espero, bertako hebrearrak ez baitziren erromatarren aurka altxa K.o. 70. urtera arte.



Hippos-Sussitako aztarnategia.